

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AGIRI GARBIKETAKO BATZORDEA

4146

IRAGARKIA, expediente judizialen garbiketari buruzkoa.

Nik, Alfonso Gonzalez-Guija Jimenez jaunak, EAEko espediente judizialen garbiketako batzordeko presidentek, honako hau

JAKINARAZTEN DUT:

Euskal Autonomia Erkidegoko Espediente Judizialen Garbiketako Batzordeak, 2012ko ekainaren 28an egindako bileran, dagozkien artxibo judizialeko arduradunek aurkeztutako espediente judizialak garbitzea erabaki du, betearazpena amaitu edo iraungipena preskribituztat jotzen duen ebazpena eman delako; era berean, bilera berean erabakitakoari jarraiki, administrazio eskudunari babestu beharreko agiriak transferituko zaizkio, euren interes historiko eta dokumentala dela-eta, eta gainerakoak, hala badagokio, birrinduko dira.

Araba:

Gasteiz:

1960. urtea baino lehenagoko espediente judizialak: Lehen Auzialdiko 1 zenbakiko Epaitegia, Instrukzioko 2 zenbakiko Epaitegia, Lehen Auzialdiko 3 zenbakiko Epaitegia (antzinako Gasteizko Udal Epaitegia), Lan Arloko 1 zenbakiko Epaitegia (antzinako Arabako Lan-Magistratura), Instrukzioko 4 zenbakiko Epaitegia (antzinako Eskualdeko Epaitegia, Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Laguardiako Epaitegia), Gasteizko Probintzia Auzitegia (antzinako Gasteizko Probintzia Auzitegia, eta Arabako erantzukizun politikoari buruzko espedientei dagokienez), Gasteizko Adingabeen Epaitegia (Adingabeen Babeserako Auzitegia).

Antzinako Lan-Magistraturako espedienteak, egun Lan Arloko 1 zenbakiko Epaitegia: 1961 eta 250/1993 arteko administrazioarekiko auzien betearazpenak, 1961 eta 1993 urteen arteko demandak, 1972 eta 1974 urteen, eta 1976 eta 1993 urteen arteko errekurtsioak, eta 1961 eta 1977 urteen arteko gobernu- eta premiamendu-espedienteak.

1989. urtea eta lehenagoko espediente zibilak: Antzinako Udal eta Barrutiko 1 zenbakiko Epaitegikoak, gaur egun Lehen Auzialdiko 3 zenbakiko Epaitegia, eta antzinako Barrutiko 3 zenbakiko Epaitegikoak, gaur egun Instrukzioko 4 zenbakiko Epaitegia.

Antzinako Barrutiko 2 zenbakiko Epaitegiko Falta-judizio eta kognizio-prozedurako espedienteak, 1989. urtea eta lehenagokoak.

Instrukzioko 1, 2, 3 eta 4 zenbakiko Epaitegiko espedienteak, Aurretiazko Eginbideak, Prozedura Laburtuak eta Habeas prozedurak behin-betiko artxibo eta largespen egoeran, eta Lurraldeko Artxibo Judizialean 2000ko abenduaren 31a baino lehenagoko sarrera-data duten falta-judizioak.

Administrazioarekiko Auzien 1 eta 2 zenbakiko Epaitegietako espedienteak, behin-betiko artxibo egoeran, Lurraldeko Artxibo Judizialean 2000ko abenduaren 31a baino lehenagoko sarrera-data dutenak.

Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4 zenbakiko Epaitegiko 61/89 Prozedura Laburtua eta 38/87 doloeko prozedura.

Amurrio: Antzinako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegietako eta Amurrioko Eskualdeko Epaitegiko espediente judizialak, 1960 urtea baino lehenagokoak.

Bizkaia:

Bilbao:

Lan-arloko 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8 eta 9 zenbakiko Epaitegiak: 1990 eta 1995 urteen artean hasitako espedienteak, biak barne.

Instrukzioko 1, 2, 4, 5, 6, 8 eta 9 zenbakiko Epaitegiak: Zigor-arloko auziak: Lurraldeko Artxibo Judizialean 2000. urteko sarrera-data dutenak.

Instrukzioko 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8 eta 9 zenbakiko Epaitegiak: Lurraldeko Artxibo Judizialean 2001. urteko sarrera-data duten zigor-arloko auziak eta Lurraldeko Artxibo Judizialean 2000 eta 2005 urteen arteko sarrera-data duten falta-judizioak.

Instrukzioko 8 eta 9 zenbakiko Epaitegiak: Lurraldeko Artxibo Judizialean 1997. urtean sartu ziren zigor-arloko auziak.

Bilboko Instrukzioko 7 zenbakiko Epaitegia: 1993, 1994, 1995 eta 1996 urteetako Prozedura Laburtuak, eta 1997, 1998 eta 1999 urteetan Lurraldeko Artxibo Judizialean sartutako zigor-arloko auziak.

Instrukzioko 1, 3, 4, 5, 6, 7, 8 eta 10 zenbakiko Epaitegietako Sumarioak, 1989 eta 1996 urteen artekoak, behin-betiko artxibo egoeran.

Zigor-Arloko 1, 2, 3, 4, 5, 6 eta 7 zenbakiko Epaitegiak: 2000 eta 2001 urteetan Lurraldeko Artxibo Judizialean sartu ziren Prozedura Laburtuak eta Betearazpen-prozedurak.

Lehen Auzialdiko Epaitegiak: Bilboko Lehen Auzialdiko 10 zenbakiko Epaitegiko 560/2003 zenbakiko Prozedura Arrunta.

Espetxe Zaintzako Epaitegia: 2000 eta 2001 urteen artean hasitako espedienteak, behin-betiko artxibo egoeran.

Adingabeen Epaitegiak: 2000 eta 2001 urteetan hasitako Adingabeen 1 zenbakiko Epaitegiko espedienteak, behin-betiko artxibo egoeran.

Balmaseda: Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1 zenbakiko Epaitegia: antzinako Balmasedako Barrutiko Epaitegia: 1950 eta 1989 urteen arteko auzi zibilak, eta 1977 eta 1989 urteen arteko zigor-arloko auziak. Antzinako Balmasedako Eskualdeko Epaitegia: 1946 eta 1977 urteen arteko Falta-judizioak.

Barakaldo: Barakaldoko Zigor-Arloko 2 zenbakiko Epaitegia: 1993, 1994, 1995 urteetan hasitako Prozedura Laburtuak, 1993 eta 1995 urteetan bukatutzat eman zirenak.

Durango: Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1 zenbakiko Epaitegia: Durangoko Barruti Judizialeko prozedura zibilak eta zigor-arlokoak, 1808 eta 1960 urteen artekoak, biak barne.

Gipuzkoa:

Donostia:

Instrukzioko 1, 2, 3, 4 eta 5 zenbakiko Epaitegiak.

1996. urteko Aurretiazko Eginbideak eta Falta-judizioak, eta 1994 eta 1995 urteetako Eginbide Zehaztugabeak, Habeas Corpus prozedurak, Falta-judizioak eta Aurretiazko Eginbideak. Instrukzioko 1, 2, 3, 4 eta 5 zenbakiko Epaitegiak: 1990 eta 1993 urteen arteko Falta-Judizioen Betearazpenak eta Eginbide Zehaztugabeak.

Hori guztia aditzera ematen dugu uztailaren 18ko 937/2003 Errege Dekretuko 16. artikulua ezarritakoaren arabera, bi hilabeteko epean interesdunek bere garaian prozesura ekarri zituzten agiriak errekueratzea izan dezaten; orobat, ohartarazten diegu epe hori igarotzen bada eta agiriok itzultzea sustatzen ez badute, aurkeztutako agiriak jasotzeko eskubidean atzera egin dutela ulertuko dugula.

Hori guztia aditzera ematen dugu, Artxibo Judizialak Modernizatzeari buruzko uztailaren 18ko 937/2003 Errege Dekretuko 20. artikulua ezarritakoaren arabera.

Bilbao, 2012ko ekainaren 28a.

Euskal Autonomia Erkidegoko Agiri Garbiketako Batzordeko presidentea.
ALFONSO GONZALEZ-GUIJA.